

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 24 proiektu soziali “Konpromiso sozialeko proiektua” izeneko zigilua eman die

*Ekimen horiek ekonomikoki laguntzen dituzten herritar eta enpresek zerga-pizgarri batzuk izango dituzte.*

Lunes, 28 de octubre de 2013

Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilariak “[Konpromiso sozialeko proiektua](#)” zigilua eman die gaur goizean Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan egin den ekitaldian Foru Komunitateko 17 erakunde sozialek bultzatutako [24 proiekturi](#).

Ziurtagiri horien bidez, Nafarroako Gobernuak ekimen horiek gizartean duten garrantzia aitortu du, eta zerga-pizgarriak emango dizkie proiektuak ekonomikoki laguntzen dituzten herritar eta enpresei.

Gaur goizean zigilua jaso duten proiektuak gizartearen alorrekoak dira eta etorkinei, baztertuta daudenei, adingabeei, familiei, mendekoei, emakumeei, prestaziorik gabeko langabetuei, garapenerako laguntzarako eta urritasunak dituztenei daude zuzenduta.

Gizarte Politiketako Departamentuak proiektuei ematen dizkien lehen zigiluak dira. Gogorarazi beharrekoa da, aurrez, bereizgarria “la Caixa” eta Diario de Navarra fundazioak jaso zutela egindako ekintza soziala aitortuz.

### Gizarteko errealitateari erantzuna

Mintzaldian, Gizarte Politiketako kontseilariak gogorarazi du “Konpromiso sozialeko proiektua” zigiluaren proiektua Departamentura zuzendaritza-talde berria iritsi eta aste gutxira eratu zela gaur egungo gizartearen errealitateari erantzuna



Alli kontseilaria “Konpromiso sozialeko proiektua” zigilua duten proiektuak sustatzen dituzten erakundeetako ordezkariekin.



Alli kontseilaria, zigiluak banatzeko ekitaldian, bertaratutakoei hitz egiten.

emateko eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaguneak sortzeko, hirugarren sektorearen eta administrazioaren arteko itun gisa.

Iñigo Allirekin batera izan da ekitaldian Mariano Oto Gizarte Politikako eta Kontsumoko zuzendari nagusia. Kontseilariak, bertan, zigilua jaso duten 24 proiektuak Nafarroako Gobernuak bermatzen dituela ere azpimarratu du. Halaber, adierazi die Nafarroako Gobernuak babes emango diela eta gardentasun eta profesionaltasunaren berme guztiak dituela.

Zera gaineratu du, " guztioi esker Nafarroan aitzindaria da" gizarte estaldurari dagokionez, baita alor horretako proiektuetarako zerga-pizgarri onenak ematen ere.

### **Zerga-pizgarriak**

Dohaintzen bidez " Konpromiso sozialeko proiektua" zigiludun proiektuak babesten dituzten pertsona fisikoek eskubidea izango dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) kuotatik dohaintzan emandako zenbatekoaren % 40 kentzeko, likidazio-oinarriaren % 30eko muga izanik.

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergapeko pertsona juridikoek bi abantaila izango dituzte. Alde batetik, partida kengarriak izango dira erakundeekin adostutako lankidetzaz-hitzarmenen arabera ordaindu edo emandako zenbatekoak. Beste alde batetik, eskubidea izango dute zenbatekoaren % 20 kentzeko kuota likidotik. Zerga-oinarriko partidaren zenbateko kengarria ezingo da izan aurretiazko zerga-oinarriaren % 30 baino gehiago, ezta negozio-zifraren zenbateko garbiaren milako 3a baino gehiago ere.

Bi kasuetan, zerga-onurak ez dira bateragarriak 1996ko Foru Aginduan ezarritako beste batzuekin. Era berean, ekarpen eta dohaintzen erakunde onuradunek ziurtatu egin beharko dute jasotakoa konpromiso sozialeko proiektuetara bideratu dela eta Nafarroako Zerga Ogasunari jakinarazi beharko diote kontua kontrola dezaten.

### **Zigilua jasotzea**

Abenduaren 20ra arteko epea dago 2013. urtean " Konpromiso sozialeko proiektua" zigilua lortzeko. Gizarte-zerbitzuen alorreko irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkez ditzakete eskaerak. Erakunde horiek egoitza Nafarroan izan behar dute edo, bestela, gutxienez 2 urteko ordezkari iraunkorra Foru Komunitatean; zerga-betebeharrak ere egunean izan behar dituzte eta ez dute debekurik ezarrita izan behar.

Zigilua eskuratzeko, proiektuek gizartearen alorrekoak izan behar dute, Nafarroatik antolatuta eta gizarte-zerbitzuak eta babes eskaini behar dizkiete oinarriko premiarik larrienak dituzten pertsonari. Ez dira onartuko gizarte-zerbitzu orokorren zerbitzu-zorroak bermatutako prestazio gisa aurreikusitako jarduerak gauzatzean datzaten proiektuak.

Horrez gain, kudeaketan eraginkortasun, efikazia, gardentasun eta kalitatearen baldintzak ere bete beharko dituzte, eta aurreko hasitakoak izan beharko dira proiektuak, hainbat urtetan egiteko, behar izanez gero.

Premia egoerei, prestaziorik gabeko langabetuei arreta emateari eta garapenerako nazioarteko lankidetzari loturiko ekimen solidarioak hartuko dira aintzat. Autonomia Pertsonalaren Legearen garapena eta emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko programek ere zigilua lortzeko aukera izango dute.